



OTA- TXINBOA

Sylvia undata

TAMAINA

12-14 zm

ITXURA

Ota-txinboak hegala laburrak eta isats luzea ditu. Aski behera hegaldaka ari da eta Pausatzen delarik buztana tente du.

Arrak emeak baino kolore biziagoa du. Bizkarra gris iluna da eta eztarria, bularra eta saihetsak kolore gorrikoak ditu. Begien ingurua gorria da.

ESPEZIE
BABESTUA
HARRAPATZEA
EDO HILTZEA
DEBEKATUA DA

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

> Urte osoan zehar

NON?

> Ote larreetan
> Txilar larreetan

Bere kantua entzun >



Ongi ikusteko zaila denez, bere kanta da presentzia seinale hobereena.

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

7 urte

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Udan intsektuak jaten ditu, eta neguan haziak eta fruituak.

Ota-txinboa sedentarioa da, baina mugimendu batzuk izaten ditu ugalketaren ondotik.

Ugalketa denboraldia udaberrian izaten da. Urtean 3-5 arraultzako bi umealdi izaten dira, bata maiatzaren hasieran eta bestea ekainean edo uztailean. Bi gurasoek habiko xitoak hazi eta intsektuekin elikatzen dituzte.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Lekuka, zangopilatzeak sortzen dituen gehiegizko jende biltzeak ota-txinboaren habitataren zatikatzea eragiten du. Bestalde, laborantzarako egiten den lurberitzea edo larre eremu zabalak estaltzen dituzten suteak kaltegarriak izan daitezke espeziearentzat. Baina, oro har, inguruneen hesteak (oihanez) habitatik gabe uzten ditu.

Landak oihanez bilakatu ez daitezten, sastrakatzeko tresnak interesa izan dezake, baita artzain su zuzenduak ere. Izan ere, alhagiak habitat horien mantentze-lanetan parte har dezake. Horrez gain, habitaten kalitateari kalte egiten dion jende metatzea kontrolatu behar da.